

# Azpeitibizi egitasmoa

## Nola bultzatu turismoa herri nortasuna eta euskara kaltetu gabe

Azpeitiko Udalak [www.azpeitibizi.eus](http://www.azpeitibizi.eus) webgunea zabaldu berri du. Herrira turismoa erakartzeko tresna da, luzea izan nahi duen prozesuaren abiapuntua baino ez. Ondoko gogoeta egin du Udalak: lehentasuna ekonomia sustatzea da, eta turismoa horretarako bideetako bat. Turismoa indartzeak ordea, nola eragingo du udalerri euskaldunean? Nola ekarri bisitariak herri nortasuna galdu gabe?



**Onintza Irureta Azkune**

@oirureta

ARGAZKIA: BURDINBIDEAREN EUSKAL MUSEOA

Azpeitian krisi ekonomikoak gogor jo zuen, langabezia %17koa zen 2013an. Gaur egun %10ekoa da. Langabe gutxiago daude Urola bailarako herrian, baina egoera gehiago hobetzeko asmotan da Udala. Lehentasuna ekonomia sustatzea da, eta besteak beste, turismoa bizitu nahi dute. Gaur egun bi gune turistiko garrantzitsu ditu herriak, Loiolako santutegia eta Burdinbidearen Euskal Museoa. Bisitari gehiago erakarri nahi dituzte, baina ez nolanahi. Azpeitia udalerri euskalduna da. 10.000 biztanletik gorako herrien artean munduko euskaldunena da. 2016ko kale erabilera neurketak dio %81,9k euskaraz egiten duela. 2009an, herritarren %86 ari zen euskaraz. Ahul baino ahulago dagoen hitanoa gehien hitz egingo den herrietakoa izango da Azpeitia. Lehen aldiz egin den kale neurketaren arabera %18,1ak egiten du hika. Alegia, euskara oso indartsu dago, bai-

na horrek ez du esan nahi halako herri euskaldunek hauskortasunik ez dutenik. Azken urteetan, Euskal Herriko udalerri euskaldunenetan euskararen ezagutzak eta erabilerak, biek, egin dute atzera. Turismoak atzerakada azkartu dezake.

Josu Labaka Azpeitiko Udaleko kultura zinegotzia da eta UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko lehendakaria. Honela azaldu digu turismoaren eta udalerri euskaldunaren arteko harremana: "Udalaren hausnarketa kezka edo arrisku horretatik abiatzen da. Eta galdera da ea horren aurrean zer egiten dugun edo zer egingo dugun. Ezin gara ezkutatu, turismoak arriskuak ditu, baina aukerak ere bai, onurak ditu, onura ekonomikoak. Gaur egun turismoa satanizatzeak arriskua dago, baina turismo masifikatua deitzen den horretatik harago, bestelako turismo bat eginez gero, herriaren garapen sozioekonomikoan eragin positiboa du".



Azpeitiko Udalak argi dauka ez duela herri nortasuna galdu nahi, eta herri nortasuna dioenean erdigunean jartzen ditu azpeitiarrak beraiek, euskara, euskal kultura, herri bizia. Alde batetik, nortasuna babesteko gogoeta egiten ari dira, baina era berean nortasun hori bera bisitariarentzat amu dela sinetsita daude: "Ez daukagu zertan gurea ezkutatu eta kanpoan beste nolabait azaldu". Herri euskalduna jarri nahi dute erakuslehoan, atzerritarrentzat, eta euskaraz bizi nahi dutenentzat ere bai. Euskaldunek jakin dezatela Azpeitia euskaraz bisitatzeko eta bizitzeko aukera izango dutela.

### [www.azpeitibizi.eus](http://www.azpeitibizi.eus)

Webgunea da *Azpeitibizi* egitasmoaren abiaburua. Besteak beste *Zatoz onera, zatoz Azpeitira* atala dauka. Azpeitiarrak dira protagonista atal horretan eta





hainbat bideotan haien testigantzak agertzen dira. *Azpeiti gogoangarria* atalean berriz, herriko leku, pertsona eta gertakari historiko ezagunei buruzko edukiak bildu dituzte. Horrez gain, Azpeitia inguruan egiteko ibilbideak jaso dituzte, baita lo, jan eta edateko ost-tuen zerrenda, eta oinarritzko zerbitzuak ere. Webgunea euskaraz baino ez dago. Bistan da lehen kolpean euskaldunak erakarri nahi dituztela. Gerorako utzi dute beste hizkuntzetara itzultzea.

#### **‘Turismoa eta hizkuntza’ lantaldea**

Bi gaiak uztartuta ez da gogoeta asko egin izan. Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean, duela hilabete batzuk, turismoa eta hizkuntza lotzen dituen lantaldea lanean hasi da eta Azpeitiko Udalak hausnarketa horretatik edan du. Esan daiteke Azpeitiko lehenerientzia dela, UEMaren asmoa gaia lantzen jarraitu eta hainbat proposamen Mankomunitateko udalerrietara zabaltzea da. ■

*Argazkian Burdinbidearen Euskal Museoa. Museo hori eta Loiolako santutegia dira herriko gune bisitatuenak. Uztartaria.eus atariko datuen arabera, 2017ko Aste Santuan, %31 bisitari gehiago hurbildu da Loiolako Turismo Bulegora, 1.200 turista. Horietatik, %32,5 Euskal Herrikoak, %53,35 Espainiako Estatukoak eta gainerakoak %15,16.*

BABESLEA: **HERNANIKO UDALA**



Herritarrok 4. urtez erabakiko dugu  
udal aurrekontuaren 500.000 euro zertan inbertitu

**erabaki.hernani.eus**

